

Gizarte Segurantza eta espainiarrek legeak betetzeko modua

Espainiako agintariek aspertzeraino errepikatu digute legea betetzeko dela, eta zer esanik ez, Espainiako batasuna kotsagratzen duen 1978ko Konstituzioa. Berriki gogoratu digute Kataluniako erreferenduma dela eta. Antzeko zerbait gertatu zitzaigun Ibaurretkek Euskal Autonomia Erkidegorako (EAE) estatus berria onetsi nahi izan zuenean.

Ajuriaeneko Ituna indarrean zegoela, eta ETAk bere borroka armatuarekin jarraitzen zuen bitartean, "bortizkeriarik gabe, edozein helburu politikoa erdiestea posible da, independentzia barne", esaten ziguten, nahiz ez beraiek, ezta guk ere –ergelen bat kenduta–, ez genuen sinesten. ETAk armak utzi zituen eta orain desagertuta dago, baina Espainian ezin da ezer egin legeak horrela eskatzen omen duelako. Dena dela, "besteek" legea bete behar dute, baina berauei dagokienean bula dute ez betetzeko.

Berrogei urtera doa EAEko Autonomia Estatutua onetsi zela eta oraindik hogeita hamazazpi eskumen transferitu gabe omen daude, horien artean espetxe eta gizarte segurantza (GS). Eskumen garrantzitsuak, bai kualitatiboki eta zer esanik ez, diru kopuruari dagokionez.

Azken transferentziak ordainketa politikoa bilakatu dira eta ez legea betetzea. Eta orain ere, aipatu espetxe eta GSren transferentziei dagokienean horrela izango da. Izan ere, gobernu zentrolean dagoen alderdiak estatuko legebiltzarrean botoak behar baditu, orduan abian jarriko dira transferentziak burutzeko elkarrizketak.

Kasurako, GSren eskumena transferitzeko eskaera areagotu da Euskal Herriko kaleetan jubilatuoak daramagun borrokaren ondorioz. Izan ere, edozein



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EKONOMIALARIA

Azken transferentziak ordainketa politikoa bilakatu dira eta ez legea betetzea. Eta orain ere, espetxe eta GSren transferentziei dagokienean horrela izango da. Izan ere, gobernu zentrolean dagoen alderdiak estatuko legebiltzarrean botoak behar baditu, orduan abian jarriko dira transferentziak burutzeko elkarrizketak

izanda ere norbanakoaren ideologia, beharrian ekonomikoak bultzatzen gaitu hurbilen daukagun gobernuak eskakizun hori bidera dezan.

Legeari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 18. artikulua araber, GSren arauak estatuko legebiltzarrek emango ditu, baina berorren kudeaketa ekonomikoa EAEk egitaritu omen dezake. Eskumen hori gauzatu ahal izateko, Estatutuaren 5. Xedapen Iragankorrek jasotzen duenez, Transferentzien

Batzorde Mistoak bere gain hartu behar du gai hori.

Zalantzarik gabe, eskumen horren transferentzia ez da erraza izango, ez politikaren ikuspegitik ezta ekonomikotik ere. Gainera, Auzitegi Konstituzionalak esana dauka transferentzia horrek estatu barruko elkartasuna, ditxosozko solidaritatea, eta kutxa batasuna hautsiko dituela, eta ondorioz, estatu zentralaren eskumena izan behar duela, derrigorrez. Beraz, eskumen hori eskuratzeko borondate politikoa egon behar du eta horretarako zer hoberik indar korrelazioa gureganatzea baino.

Kutxaren batasun araua ere erabilgarri izan daiteke zerga sistemarentzat. Izan ere, Hitzarmen Ekonomikoak estatuko zerga kutxa hausten du eta Espainiaren batasuna ez du auzitan ipini. Gainera, Kupoaren bidez ordaintzen dugu solidaritate funtsa.

Hitzarmen Ekonomikoaren eredia aplikatu daiteke GSrentzat: ekarpenak hemen gauzatu eta kudeatu eta Kupoaren modukoaren bidez ordainketak burutu administrazio zentralari, beregain gordetuen eskumenak finantzatzeko, solidaritate funtsa barne.

Zertarako ordea GSren transferentzia orain, ekarpen apalagoa burutzen badugu eskuratutakoa baino? Aipatu amarrua da aitortzea EAEko GS defizitarioa dela. Estatu osokoa ere defizitarioa da, baina Hitzarmen Ekonomikoa bezala guk, hurbiletik, kudeatuko dugu eta eraginkorragoa bihurtu. Eta pentsio duinagoak izate aldera, geure aurrekontuetatik ekarpen osagarri eta egonkorrek egiteko aukera izango dugu eta ondorioz ongizate oparagoaz gozatu.

Baina hori lortzeko, indar korrelazioa geure aldean ipini behar dugu, hortik etorriko da behar den borondate politikoa egokitzea. ■